

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea uraren, zaborraren eta estolderiaren 2024ko lehen hiruhilekoko erroldak

Behin Okondoko udalerriko ur horniketa, estolderia eta zabor bilketaren tasen 2024ko lehenengo hiruhilekoko erroldak eginda, onetsi egin dira alkatearen 2024ko apirilaren 8ko dekretu baten bidez.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eraginpeko zergadunek aukera izan dezaten errolda aztertzeko eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudubiarte kalea 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2024ko maiatzaren 1etik ekainaren 1era.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaitzen denean, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazte aldia hasiko da zuzenean. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erre-karguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala dagokionean.

Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergapekoek ez dute inolako izapiderik egin behar, 2024ko maiatzaren 3an egingo baita zordunketa.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan emango zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Caja Rural de Navarra entitatean sar dezaten.

Okondo, 2024ko apirilaren 9a

Alkatea

JUAN JOSE ESCUZA DEL CAMPO